



...eta bidean Irun

Begirada bat bidean doazen emakumezkoiei.

...en el camino Irun,
una mirada a las mujeres en ruta

ARGAZKI ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN TOGRÁFICA
GARI GARAIALDE

BO5TOK
P H O T O

AURKIBIDEA / INDICE

- Zer da BOSTOK PHOTO?
- Nor da GARI GARAIALDE?
- Sarrera
- Helburuak
- Erakusketa proposamena
- Aurrekontua

- ¿Qué es BOSTOK PHOTO?
- ¿Quién es GARI GARAIALDE?
- Introducción
- Objetivos
- Propuesta expositiva
- Presupuesto

- Kontaktua / Contacto



BOSTOK PHOTO Euskal Herrian kokatuta dagoen argazki kooperatiba bat da, munduaren ikuskera pertsonal batean oinarrituta kalitatezko irudiak eskaintzen dituen. **BOSTOK** osatzen dugun argazkilariok ibilbide luzea egingo dugu Euskal Herria argazkitara ekartzen; bai gatazka politiko-armatua kubritzen, bai eta lurraldeko kultur gai eta tradizio sendoak erretratatzeko ere. Munduaren parte garen heinean, atzerriko ere begiratzen dugun kontatzeko istorio garrantzitsuen bila, hala nola nazioarteko gatazkak, garatze bidean dauden herrialdeetako eguneroko bizitza eta munduaren luze-zabalean topatu ditzakegun beste hainbat giza kezka. Une oro bizi dugun garaia inguruan dugun ikusmoldea erakusten saiatzen gara bertako kideak, horretarako lehen mailako fotokazetaritza eta argazkigintza dokumentalak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzen ditugularik.

GARI GARAIALDE (Irun, 1972) Rock taldeei irudiak ateratzen ibili ondoren, 1993an, ARGIA aldizkarian hasi zen kolaboratzaile moduan. 1998an, Hondarribiko Udalak ematen zituen arte plastiko proiektuentzako beka bat jaso zuen Maite ditut zure bazterrak lana burutu ahal izateko. 1998tik 2001 amaitu arte, Euskaldunon Egunkariako argazkilari bezala ibili ondoren, 2002. urtean Argazkipress argazki agentzia sortu zenetik, bertan aritu zen 2013ko martxora arte. 2001 urte erdialdetik 2013ko urriaren amaiera arte, proiektuak iraun zuen bitartean, Bidasoaldeko gaiak jorratzen zituen Txingudi de Luxe aldizkarian ibili zen, argazkiak ateratzeaz gain argazkilarien koordinatzaile lanak egiten.

Gaur egun **Getty Images** agentziarekin kolaboratzen du eta bere lana **Gara, Berria, Record, Der Spiegel, The Washington Post, The Guardian** eta **El Pais** bezalako argitalpenetan agertu da, beste batzuen artean.

2019an prentsa idatziarentzako **ARGIA Saria** jaso zuen, Irundik muga pasatzen duten migratzaileen inguruan egindako argazki lanarengatik.

Bostok Photo kooperatibako sortzaileetako bat da.



SARRERA

Irun muga-hiri den unetik izan da pasa-bide edo pasa-hiri. Zaharrak dira Bidasoa ibaiaren alde batetik bestera jendea modu irregularrean pasatzen zela kontatzen duten lehen istorioak.

Urrun geratu den 2018ko uda-garaian, Irungo kaleetan, Frantzia eta Espainiako estatuak banatzen dituen muga zeharkatu ezin eta Irunen Saharaz hegoaldeko lagun-talde hura azaldu zenetik, jende askok hartu du Irun migratzaileentzat transito gunea denaren kontzientzia.

Hemendik hara batzuetan, eta handik hona besteetan. Gerrari ihes, goseari ihes, diktadura ankerrei ihes... edo besterik gabe, bizitza zaharrari ihes; bizimodu gogorrari eskapo. Etorkizun berri bat eraikitzeko esperantza bizkarrean hartu, eta bideari ekin izan dio jendeak jende den une berberetik.

Baina zaila da bidea ezkutuan eta poliziengandik iheska egitera behartuta daudenentzat. Kondizio horietan egindako bidaiak jendea jan egiten du; gizon-emakume ugari akabatzen ditu, baina beste askok aurrera egiten du. Hesi azpitik pasa; muga gainetik salto egin, eta bidea egiten dute. Noizean behin, hedabideetan ikusten ditugu, ahul, zaurgarri, barku batek antzeman dituelako itsasoan edo bere kabuz Kanariar uharteetara iritsi berritan. Batzuetan, telebistak erakusten dizkigu Ceuta edo Melillara sartu eta bertako hesia pasa ondoren, kaleetan korrika, boza! boza! oihukatuz.

Telebistan hain urrun ikusten ditugun horiek berak dira Irunera iristen direnak, egunero eta, San Juan plazaren izkina batean, udaletxe aurrean, bildu eta Harrera Sarearen eskolak jaso ondoren aurrera segitzen dutenak. Ez da erraza bidea. Ez da erraza gizonentzako, eta ez da erraza emakumezkoentzako ere. Baina emakumeek ere bidea egiten dute, bakarrik batzuetan, haur txikiekin besteetan, taldean, bidean ezagututako beste emakumeek lagunduta edo gizonen artean nahasian, baina bidea egiten dute.

Badugu joera pentsatzeko bidea gizonek irekitzen dutela; gizonok mozten ditugula sasi eta alanbre-hesiak eta atzetik ekartzen, erakartzen ditugula emakumeak, baina ez da egia. Emakumezkoek ere egiten dute bidea; gizonezkoek bezala, anai zaharragoren batek edo lehengusuren batek lehenago egin zuen bideari jarraituz, jaioterria utzi, eta bizitza hobe baten bila irteten dira. Senarrak Europan hasitako bizitza horretara elkartzeko asmoz ateratako emakumeak badira, noski, baina baita anaia, aita edo amarekin elkartzeko asmoz partitzen direnak ere, beste norbaitekin elkartzeko asmoz irtendako gizonezkoak dauden modu berean.

HELBURUAK

Mugak zeharkatzea oztopatzeko hartzen diren erabaki politikoek zailtzen dute bidea. Badira zailtasun bereziak; badira emakumezko izateagatik pairatutako jazarpen espezifikoak. Gizonezkoa eta emakumezkoak ezberdin tratatzen dituen gizarte eta kulturak topatzen dituzte bide osoan zehar, eta sarri, modu berezian erasotzen dituzte emakumezkoak, baina hona iristean ere, emakumezkoak eta gizonezkoak desberdin epaitzen dituen gizarte batekin egiten dute topo; eta modu ezberdinean begiratzen ditugu. Kultura eta gizarte matxistek egiten dituzte zaurgarri; migrazio politika eta lege arrazistek zer esanik ez, eta guk, sarri, zaurgarriago marrazten ditugu.

Erakusketa hau bidea egiten duten emakume horiek ikusgarri egiteko saio bat da. Nire asmoa ez da emakumezkoak zein indartsuak diren erakustea. Argi dut mundu bat dela bakoitza, eta neskato indartsuak bezainbeste izango dira bideari beldurrez beteta ekiten diotenak. Ni ez naiz nor haien ausardia goratzeko, ez baititut maila horretaraino ezagutu; ez dut epika faltsu bat jarri nahi mahai ganean, baina ez ditut modu paternalista batean epaitu nahi. Ikusgarri egin nahi ditut, besterik ez. Jaioterria utzi eta Europara abiatzen den migrantea imajinatzen dugunean, geure buruan sortzen dugun mutil gazte ausartaren estereotipoa dantzan ipini, eta emakumezkoak ere badirela erakutsi nahi dut.

ERAKUSKETA PROPOSAMENA

...eta bidean irun erakusketa 3 mm-ko Dibond-ean inprimatutako 10 argazkiz osatuta dago.

Argazki guztiek **100x66** cm-ko neurria dute.

200x80 cm-ko Roll up batean idatzitako aurkezpenak ematen dio testuingurua erakusketari.

AURREKONTUA

Azalpena	Prezioa
Emakumezko migranteei buruzko “... eta bidean Irun” argazki erakusketa jartzea (Transportea muntaia eta desmuntaia hartzen ditu barne)	850,00€
Hilabete 1	600,00€
Hilabete 1/2	

Aurrekontu honek ez du BEZik.

...eta bidean Irun



BOSTOK PHOTO es una cooperativa fotográfica ubicada en el País Vasco que ofrece imágenes de calidad basadas en una visión personal del mundo. Los fotógrafos que formamos **BOSTOK** tenemos una larga trayectoria en la fotografía de Euskal Herria, tanto en el conflicto armado como en el retrato de temas y tradiciones culturales sólidos del territorio. Como parte del mundo, miramos también al extranjero en busca de historias relevantes que contar, como conflictos internacionales, la vida cotidiana en los países en desarrollo y otras preocupaciones humanas que podemos encontrar en el mundo en su abierto mundo. Sus miembros tratamos de mostrar nuestra visión de la época que vivimos en cada momento, utilizando para ello los recursos que ofrece el fotoperiodismo primario y la fotografía documental.

GARI GARAIALDE, (Irun, 1972) Después de haber estado sacando imágenes a grupos de rock, en 1993 comenzó a colaborar en la revista ARGIA. En 1998 recibió una beca para proyectos de artes plásticas por parte del Ayuntamiento de Hondarribia para la realización de la obra 'Maite dut zure bazterrak'. Tras su carrera como fotógrafo de Euskaldunon Egunkaria desde 1998 hasta finales de 2001, desde la creación en 2002 de la agencia fotográfica Argazkipress, trabajó en ella hasta marzo de 2013. Desde mediados de 2001, hasta finales de Octubre de 2013, durante el tiempo que duró el proyecto, pasó por la revista Txingudi de Luxe, dedicada a temas de la comarca del Bidasoa, además de fotografiar, ejerciendo de coordinador de fotógrafos.

Colabora actualmente con la agencia **Getty Images** y su trabajo ha aparecido en publicaciones como **Gara**, **Berria**, **Record**, **Der Spiegel**, **The Washington Post**, **The Guardian** y **El País**, entre otros.

En 2019 recibió el **premio ARGIA** a la prensa escrita por el trabajo fotográfico realizado documentando el transito de los migrantes por Irun.

Es cofundador de la cooperativa **Bostok Photo**.

INTRODUCCIÓN

Irun, desde que es ciudad fronteriza también ha sido lugar o ciudad de paso. Viejas son las historias que cuentan cómo cruzaba la gente el río Bidasoa de manera irregular.

Lejos queda el verano de 2018, cuando aparecieron en las calles de Irun un grupo de migrantes subsaharianos, que no podían cruzar la frontera que separa el Estado francés y el español. Desde entonces, mucha gente se ha percatado que es un punto de tránsito de migrantes.

Las personas migrantes que tan distantes vemos en televisión son las que llegan a Irun todos los días y las que después de reunirse en una esquina de la plaza San Juan y recibir las 'clases' de la Red de Acogida de Irun siguen su camino.

El camino es difícil para quienes se ven obligados a esconderse y huir de la policía. Viajar en estas condiciones devora a la gente. No es fácil para los hombres y tampoco lo es para las mujeres; pero las mujeres también hacen camino. Solas unas veces, otras con niños pequeños, en grupo, acompañadas de otras mujeres que han conocido en la ruta o mezclados entre hombres, pero hacen camino. Tendemos a pensar que el camino lo abren los hombres, pero no siempre es cierto.

Tenemos tendencia a pensar que el camino lo abren los hombres y que las mujeres vienen detrás, pero no es cierto. Las mujeres también hacen camino; igual que los hombres, abandonan su país natal y salen en busca de una vida mejor siguiendo la ruta que antes recorrió algún hermano mayor o alguna prima. Por supuesto que hay mujeres que salen con la intención de unirse a esa nueva vida iniciada por su marido en Europa, pero también hay que parten con la intención de unirse a su hermana, a su padre o a su madre. Del mismo modo que hay hombres que salen para reunirse con otros familiares.

OBJETIVOS

Las decisiones políticas que se toman para dificultar cruzar fronteras dificultan el camino y la necesidad de hacerlo clandestinamente crea nuevos obstáculos. Existen dificultades especiales, acosos específicos por el hecho de ser mujer. A lo largo de todo el camino encuentran sociedades y culturas que tratan de manera diferente a hombres y a mujeres, y a menudo la agresión sobre estas mujeres se materializa de manera especial, pero incluso al llegar aquí se encuentran con una sociedad que juzga a mujeres y hombres de manera diferente; y les miramos de manera diferente. La cultura y las sociedades machistas son las que las hacen vulnerables, que decir de las políticas migratorias y las leyes racistas, pero nosotros a menudo las dibujamos todavía más vulnerables.

Esta exposición es un intento para hacer visibles a esas mujeres que hacen camino. La intención no es mostrar lo fuertes que son las mujeres. Está claro que cada una es un mundo, y habrá tantas chicas fuertes como las que emprendan el camino cargadas de miedo. No soy quién para alabar su valentía, pues no las he conocido hasta ese grado; no quiero poner sobre la mesa una falsa épica, pero tampoco quiero juzgarlas de un modo paternalista. Sólo quiero hacerlas visibles. Quiero hacer tambalear el estereotipo de joven valiente que creamos en nuestra mente cuando imaginamos al migrante que abandona su lugar de nacimiento y parte hacia Europa, y mostrar que también hay mujeres.

...eta bidean Irun



PROPUESTA EXPOSITIVA

La exposicion **...eta bidean irun (...en el camino Irún)** está compuesta de 10 fotografías impresas en Dibond de a 3 mm.

Las fotografías tienen una medida de **100x66** cm cada una.

Una introducción escrita en un Roll up de 200x80 cm explica el contexto de la exposición.

PRESUPUESTO

Concepto	Precio
Instalación de la exposición fotográfica “...eta bidean Irún” sobre mujeres migrantes (incluye transporte, colocación y desmontaje)	
1 Mes (aprox)	850,00€
1/2 mes (aprox)	600,00€

Este presupuesto no incluye IVA

KONTAKTUA / CONTACTO

Harremanetan jartzeko:

Gari Garaialde
gari@bostokphoto.com

+34 609 824 695

Eguzkitzaldea 2-2.
20304 IRUN

bostokphoto.com

BO5TOK
P H O T O